

Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua

Hitz egin euskaraz seme-alabekin, eta, aukera izanez gero, bikotearekin ere bai

Anima itzazu aisialdian euskarazko jardueretan parte hartzera

Motiba itzazu

Aita-ama agurgarriok:

Gero eta arruntagoa da gure inguruko umeei euskaraz berbetan entzutea. Izan ere, guraso ugari hizkuntza gorde edo ikasi duzue eta orain seme-alabei transmititzeko ahalegina egiten duzue. Beste askok, berriz, jatorriz erdaldunak izan arren, euskara ikasi eta garatzeko aukera eman nahi diete seme-alabei horientzat aberasagarria delakoan.

Txikitatik hizkuntza bat baino gehiago ikastea onuragarria da, eta gainera umeei erraz-erraz ikas dezakete hizkuntza bat baino gehiago aldi berean.

Esku artean duzuen liburuxka honetan eleaniztasunaren inguruan interesagarria izango zaizuen informazioa eta sarritan izan ditzakezuen kezken inguruko aholkuak batu ditugu.

Aisialdiko jarduerak ezinbestekoak direnez hizkuntza modu naturalean garatzeko, Eibarren ume eta gazteek eskolaz kanpo euskaraz jarduteko dituzten aukerak ere zerrendatu ditugu.

Eta, azkenik, zuen seme-alaben eskolako lanetan nola lagundu azaltzen duen informazio praktikoa eta gaiarekin loturiko material lagungarria jaso dugu ikas-tetxeen eta Liburutegiaren laguntzaz.

Liburuxka hau Alma Flor Ada eta Colin Baker irakasle entzutetsuen GUÍA PARA PADRES Y PROFESORES DE NIÑOS BILINGÜES liburuan oinarrituta dago, eta zeuek eguneroko bizitzan erabiltzeko helarazi dizuegu.

Euskarazkoa eta gaztelerazkoa ez dira erabat berdinak, euskarazkoa euskaraz dakizuen gurasoon kezka eta beharizanei begira prestatu baitugu, eta gaztelaniazkoa, berriz, euskaraz ez dakitenean beharrei begira.

Lagungarri izango zaizuelakoan,

MIGUEL DE LOS TOYOS (Eibarko Alkatea)



**EZ UKATU BI HIZKUNTZA OFIZIALAK
MENPERATZEKO AUKERA ZURE SEME-ALABEI,
EUREN MESEDETAN
ARITUKO ZARA.**

aurkibidea

Zer egin etxean euskararen erabilera indartzeko 4

- Informazio orokorra
- Biok euskaldunak bazarete
- Batak euskaraz baldin badaki eta besteak ez

Ohiko kezkak 8

- Gure semeak/alabak euskaraz ikasten du. Zailtasunik izango du etorkizunean gaztelania ikasteko?
- Gure alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?
- Ez nago euskaraz alfabetatua. Nola lagundu ahal diot semeari/alabari eskolako lanak egiten?
- Nola lagundu ahal diot semeari/alabari euskaraz irakurtzen eta idazten?
- Non lortu dezaket seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?
- Euskara batua ala etxekoa, zein erabili behar da?
- Nire bikotekidearekin euskaraz hitz egitea asko kostatzen zait. Zer egin dezaket?
- Zein hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitenak gurekin daudenean?

Aisialdiko jarduerak euskaraz 12

Nola jokatu gure seme alaben eskolako lanekin 16

Eranskina: eskolako lanetarako material lagungarria 22

ZER EGIN ETXEAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO

Askotan izaten dira ikasteredu (A,B eta D ereduak) edota bi hizkuntza batera ikastearen inguruko kezka gurasoen artean.

Azken 35 urteotan eginiko ikerketen emaitzek argi eta garbi utzi dute txikitatik hizkuntza bat baino gehiago ikastea ez dela kaltegarria, onuragarria baizik: haur batek aldi berean hizkuntza bat baino gehiago ikasteko gaitasuna dauka, bi hizkuntza ezagutzen dituen haurrak (elebidunak) hizkuntza bakarra ezagutzen duenak baino errezago bereganetzen du hirugarren hizkuntza bat, adimen malgutasun handiagoa du, komunikaziorako gaitasun handiagoa...

Hizkuntzak ikasterakoan oinarri-oinarrizkoak dira hiru faktore hauek: hizkuntza erabiltzea, ezagutzea eta motibatuta egotea. Hirurak dira beharrezkoak.

Gure seme-alabek (baita guk ere) zenbat eta gehiago erabili hizkuntza, orduan eta gehiago ezagutuko dute, eta orduan eta motibatuago sentituko dira. Eta, alderantziz, zenbat eta motibatuago egon, orduan eta gehiago ezagutuko dute eta gehiago erabiliko dute. Guztiak dira elkarren osagarri.

Eskola (batik bat D ereduak) da gizarte honek antolatatu duen erakunde nagusia umeei bi hizkuntza ofizialak ikasteko. Baina urte osoko orduetatik

haurrak gelan %15a soilik pasatzen du, eta gainera eskolako hizkera ez da lagun arteko hizkera informala, gaiak gehienetan eskolarrak izaten dira eta.

Horregatik oso garrantzitsua da gure seme-alabek eskolatik kanpo dituzten aukera eta esparru guztiak aprobetxatzea (familia, komunikabideak, eskolaz kanpoko jarduerak...), eta euskara modu informalean eta naturalean erabiltzea, orduan gozatuko dute-eta hizkuntzarekin.

Beraz, benetan komenigarria eta garrantzitsua da etxean euskara erabiltzeko dituzuen aukera guztiak aprobetxatzea, etxe bakoitzean aukera edo posibilitate desberdinak izango dituzuela kontuan hartuta, noski.

✓ Hitz egin euskaraz seme-alabekin, eta, aukera izanez gero, bikotearekin ere bai.

✓ Anima itzazu aisialdian euskarazko jardueretan parte hartzera.

✓ Motiba itzazu.

ZER EGIN ETXEAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO

Biok euskaldunak bazarete:

- ✓ Ez ezazue euskaraz umearekin bakarrik egin. Bikoteko harremanak euskaraz egiten badituzue, haurrak ere euskaraz egiteko ohitura finkatuko du seguruenik.
- ✓ Etxeko euskara erabili konplexurik gabe: naturaltasunez, informaltasunez, etxeko giroak eskatzen duen modura.
- ✓ Eskolan bai, baina eskolaz kanpo ere bai: garrantzitsua da bere gustuko gauzak ere euskaraz egitea (kirola, dantza, musika...)
- ✓ Umeari kantuak, ipuinak, jolasak erakutsi: horiek haurrarekin euskaraz eginez gero, haurrentzat mesedegarria izango da, bai hizkuntza hobeto jasoko duelako, bai afektibitatearekin lotuko duelako.
- ✓ Eguneroko zereginetan ere euskara normal erabili: euskarazko prentsa eta aldizkariak irakurri, oparitu umeei euskarazko ikus-entzunezkoak, etxeko paperak euskaraz idatzi, erosketak euskaraz egin, zuen lagun euskaldunekin euskaraz aritu...
- ✓ Saia zaitezte zuen euskarazko gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa aberasten: haurrak antzemango du, eta zuek ere eskertuko duzue.



- ✓ Gainerako guraso euskaldunekin euskaraz egin eta, bereziki, gutxiago dakitenei euskaraz aritzeko aukera eman.

Batak euskaraz baldin badaki eta besteak ez
(aurreko aholku guztiez gain):

- ✓ Pertsona bakoitzak hizkuntza bat: oso garrantzitsua da euskaraz dakien gurasoak euskaraz egitea haurrari, horrela, euskara ere lehen hizkuntza izango du eta hori ezingo dio beste inork eman.
- ✓ Familia bidezko transmisioa da hizkuntza bat jasotzeko erarik: UNIBERTSALENA, NATURALENA, ABERATSENA, MERKEENA eta ERAGINGARRIENA

EUSKARA BADAKIZU EZ UKATU AUKERA HORI ZURE SEME-ALABEI,
EUREN MESEDETAN ARITUKO ZARA.

OHIKO KEZKAK

Euskara batua ala etxekoa, zein erabili behar da?

*Gure alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?
Ez nago euskaraz alfabetatua. Nola lagundu ahal diet seme-alabei eskolako lanak egiten?*

- **Gure semeak/alabak euskaraz ikasten du. Zailtasunik izango du etorkizunean gaztelania ikasteko?**

Euskara hutsean eskolatutako umeek oso erraz ikasten dute gaztelania etorkizunean. Batetik, hizkuntza batean ikasten diren edukiak bigarren hizkuntzara aldatu daitezkeelako erraz bai erraz; eta bestetik, gaztelania gehiagoaren hizkuntza izanda, umeak gaztelaniaz egiteko hamaika aukera dauzkalako.

- **Gure alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?**

Ume gehienek nahasten dituzte euskara eta gaztelania hainbat egoratan eta hainbat lagunekin, baina, oro har, fenomeno hori desagertu egiten da hizkuntza biak garatzen diren neurrian. Oso garrantzitsua da umeari errieta ez egitea erratzen den bakoitzean eta haren komunikazio-ahaleginak txalotzea.

- **Ez nago euskaraz alfabetatua. Nola lagundu ahal diot seme-ari/alabari eskolako lanak egiten?**

- Saia zaitez berarekin batera ikasten.
- Ikastaro txiki bat ere egin dezakezu eta oso esker onekoa izango da zuretzat.
- Haurrari eman beharreko laguntzaz balia zaitezke, zure euskaraimaila hobetzeko:
 - Arretaz irakurriz.
 - Ulertzen ez dituzun hitzak berari galdetuz edo hiztegia begiratzuz.

- **Nola lagundu ahal diot seme-ari/alabari euskaraz irakurtzen eta idazten?**

Hasteko eta bat, gurasook oso argi eduki behar duzue irakurketa eta idazketa jardura atseginak izan behar direla umeentzat. Haurtzaroan, irudimena lantzeko liburu bizi, erakargarri eta barre-eragileak behar dira. Animatu seme-alabak euskaraz irakurtzera eta idaztera, betiere helburu bati zein mezu bati lotuta eta, batez ere, ez azpimarratu etengabe umearen ortografia edo gramatika akatsak.

- **Non lortu dezaket seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?**

Euskarazko argitalpen ugari aurki daitezke merkatuan ume eta gazte-
txoentzat, oro har, adinaren arabera sailkatuta. Gainera, aukera bikaina da herri liburutegia erabiltzea: doako zerbitzua da eta guztiz baliagarria. Horrez gain, Euskarazko Produktuen katalogoan informazio bali-

OHIKO KEZKAK

garria aurkituko duzu euskarazko liburu, disko eta beste gai batzuei buruz, batez ere, argitaratu berri direnei buruz (www.katalogoa.org).

- **Euskara batua ala etxekoa, zein erabili behar da?**

Etxeko euskara erabili konplexurik gabe; egokiagoa da etxean euskalkia erabiltzea euskara batua baino. Dakizuen euskara hori erabili, naturaltasunez, informaltasunez, etxeko giroak eskatzen duen modura...

- **Nire bikotekidearekin euskaraz hitz egitea asko kostatzen zait. Zer egin dezaket?**

- Beste ohitura batzuk aldatu dituzun bezala, hauek ere aldatzeko erabakia hartu eta gauza txikiekin hasi eta behin eta berriz errepikatu.
- Horiek finkatu ahala, berri batzuei heldu...
- Prozesuaz hitz egin eta baloratu.

- **Zein hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitenak gurekin daudenean?**

Ume elebidunak modu egokian hazteko, hizkuntza bakoitzaren erabiler mugatu behar da:

- Familia-hizkuntza euskara bada, egin beti euskaraz seme-alabei. Eta, zuekin daudenek (lagunak...) euskara ulertzen ez badute, itzuli gaztelerara umeei esandakoa. Jarrera horrek argi erakusten du familia-hizkuntza babestu eta garatu nahi dela, eta ez dela ezkututzen, ezta hizkuntza nagusiaren menpean jartzen ere.

OHIKO KEZKAK

- Bikotekide bakar batek euskaraz badaki, ordea, biderik ohikoena dugu euskaldunak umeari euskaraz egitea eta gaztelaniadunak gaztelaniaz. Gerora, umeei bi hizkuntzak garatu ahala, ondo moldatuko dira hizkuntza batean zein bestean.

Eta gogoan izan:

EUSKALDUN IZATEA ETA BIZITZEA MUNDU HONETAKO KIDE ETA HERRI IZATEKO ERA DUIN ETA ORIJINALA DELA.

GEURE BURUARI MESEDE EGITEAZ GAIN, INORI KALTERIK EGITEN EZ DIONA.

ETA GAINERA, MUNDUA BERA OSOAGO EGITEN LAGUNTZEN DUENA.

aholkularitza eta informazioa

Gaiaren inguruan zalantza edo kezka bat izanez gero, deitu edo etorri lasai Euskara, Kultura eta Hezkuntza sailera, edo bidali zuen mezua idatziz. Gustura erantzungo dizuegu.

Telefono zenbakia: 943708435

e-maila: euskera@eibar.net

trebaketa@eibar.net

Harremanetarako: [Junkal Txurruka eta Ane Maite Irusta.](#)

AISIALDIKO JARDUERAK EUSKARAZ

Afariketan

5-12 urte bitarteko umeei zuzendutako aisialdi programa da. Ludoteka eta ikastetxeetan burutzen da, urritik maiatzera bitartean, arratsaldez, eskola ordutegitik kanpo.

Harremanetarako: Astixa

Kalean Afariketan

Umeei zuzendutako kaleko aisialdi programa da. Eibarko kaleetan garatzen da, udazkeneko eta udaberriko ostiral arratsaldeetan, eskola ordutegiz kanpo.

Harremanetarako: Astixa

Oporrak afariketan

5-12 urte bitarteko umeei zuzenduriko udaleku irekiak dira. Uztailean garatzen dira, eta egun osoko txango nahiz egun erdiko irteera eta jarduerak burutzen dira. 5 urteko umeak bi orduz aritzen dira jolasean, kalean, ikastetxeetan eta ludoteketan.

Harremanetarako: Astixa

Multikirola

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitarteko umeei zuzenduriko eskolaz kanpoko kirol jarduerak: futbola, eskubaloia, rugbia, atletismoa, pilota, aerobic eta judoa. Urritik maiatzera bitartean garatzen da.

Harremanetarako: ikastetxeak

Zapatuko ipuina

3-8 urte bitarteko umeei zuzenduriko programa da. Ipuin kontalari profesionalen eskutik garatzen da Juan San Martin Udal Liburutegian, irailetik apirilera bitartean (hilaren azken larunbatean), arratsaldez.

Harremanetarako: Juan San Martin liburutegia

Zapatuetako tailerrak

5-12 urte bitarteko umeendako tailerrak. Urritik maiatzera bitartean burutzen dira, zapatu arratsaldeetan, Portalea Kultur Etxean eta gazteendako gunen Errota Gaztelekuan.

Harremanetarako: Euskara, Kultura eta Hezkuntza saila

Musika ikastaroak

7 urtetik gorakoei zuzendutako musika ikastaroak dira: koroa, banda, orkestra, eta ia instrumentu guztiak. Musika Eskolan galdetu.

JBG Musika Eskolan burutzen dira, irailetik ekainera bitartean, eskola ordutegitik kanpo.

Harremanetarako: JBG Musika Eskola

Dibujo eta pintura ikastaroak

8 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroak dira.

Portaleko Dibujo eta Pintura Eskolan burutzen dira, urritik ekainera bitartean, eskola ordutegitik kanpo.

Harremanetarako: Dibujo eta Pintura Eskola

Zeramika ikastaroak

8 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroak dira. Zeramika Eskolan galdetu.

Portaleko Zeramika Eskolan burutzen dira, urritik ekainera bitartean, eskola ordutegitik kanpo.

Harremanetarako: Zeramika Eskola

Euskal dantza ikastaroak

6 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroak dira.

Portaleko Dantza Aretoan burutzen dira, irailetik ekainera bitartean, eskola ordutegitik kanpo.

Harremanetarako: Kezka dantza taldea

AISIALDIKO JARDUERAK

EUSKARAZ

Igeriketa ikastaroak

4 urtetik gorakoei zuzendutako ikastaroak dira.

Ipuruia kiroldegian eta Orbea kiroldegian burutzen dira, irailetik uztaileira bitartean, eskola ordutegitik kanpo.

Harremanetarako: Ipuruia kiroldegia eta Orbea kiroldegia

Igeriketa, patinak, eskalada...

4-11 urte bitarteko umeei zuzendutako jarduerak dira.

Ipuruia Kiroldegian burutzen dira, uztailean.

Harremanetarako: Ipuruia kiroldegia

Waterpolo eskola

12 urtetik gorakoentzat.

Orbea kiroldegian burutzen dira, irailetik uztaileira bitartean, eskola ordutegitik kanpo.

Harremanetarako: Urbat-Urkotronik waterpolo saila

Errota Gaztelekua

Errota Gaztelekua 12-16 urte bitarteko gazteendako aisialdi gunea da, eta arratsalde guztietan zabalik egoten da.

Karmen kaleko 3. zenbakian dago kokatuta, eta bertan, besteak beste, aukera hauek eskaintzen dira: topaguneak, ordenadoreak, jolasak, hemeroteca txiki bat, informazio gunea ...

Zerbitzu hau astialdiko profesionalek dinamizatzen dute, eta jarduerak begirale baten ardurapean burutzen dira.

Harremanetarako: Astixa

Gaztetan

12-16 urte bitarteko gazteendako aisialdi programa da. Egun osoko irteerak eta hainbat egunetako egonaldiak antolatzen zaizkie gazteei, urtean zehar.

Harremanetarako: Astixa

Informazio gehiago nahi izanez gero: Euskara-Kultura eta Hezkuntza saila (943 708435)

ANTOLATZAILEEN

telefono gida

PORTALEA, Bista Eder 10

Euskara, Kultura eta Hezkuntza saila	943 708435
Juan San Martin liburutegia	943 708437
Dibujo eta Pintura Eskola	943 708439
Zeramika Eskola	943 708439
Kezka dantza taldea	605711429

JBG MUSIKA ESKOLA, Errebal 11 943 702725

IPURUA KIROLDEGIA, Santaines 7 943 203240

ORBEA KIROLDEGIA, Urkizu pasealekua 11 943 030015
Urbat-Urkotronik waterpolo saila 688 610 627

ASTIXA, Zezenbide 7 943 206231

IKASTETXEAK

Aldatze Probidentzia, Aldatze 5	943701150
Amaña, Artegieta 6	943207250
Arrateko Andra Mari, JA Iturrioz 5	943207235
Iturburu, Mandiola 29	943208487
La Salle Isasi, Isasi 34	943202133
San Andres, Bidebarrieta 34	943207995
Urkizu, Karmen kalea 5	943121778

NOLA JOKATU GURE SEME-ALABEN

eskolako lanekin

Eskolako lanak seme-alabek beraiek egin behar dituzte

Ikasgelan ikasi duten zerbait da eta praktikatu egin behar dute. Beraz, badakite egiten.

- Gu ez gara irakasleak. Beraz, ez dugu zertan edukiak ezagutu beharrik. Ez dugu horregatik gaizki sentitu behar.
- Lana beraiena da, baina batzuetan alferkeriara jotzen dute eta gu inkontzienteki, konturatu gabe, beraiek egin beharreko lana egiten hasten gara. Errez engainatzen gaituzte.
- Eskolako lanekin arazoren bat izanez gero, tutoreekin eta irakasleekin komunikazio on bat edukitzea oso garrantzitsua da.

Erabakiak hartzen ikasi behar dute

Beraiek erabaki behar dute zer, noiz eta nola egin.

- Guk lagundu egin behar diegu hori ikasten: 6-7 urterekin eskolako lanak antolatzen lagundu beharko diegu: denbora tarteak finkatzen, ordutegiak... Baina poliki-poliki urruntzen joan behar dugu, eta beraiek hasi behar dute gauzak antolatzen, erabakitzen...

ERABILTZEN DITUGUN ESTRATEGIA GUZTIAK IKASTEKO AUTONOMIA GARATZEKO ERABILI BEHAR DITUGU:

Eskolako lanak haurrek eurek egin behar dituzte, ondo ala txarto euren eginbeharra da eta gurasoon ardura haurra bideratzea eta ikasteko ohiturak finkatzen laguntzea da, baina inola ere ez haurraren protagonismo aktiboa ordezkatzeko. Eskura dituzten baliabideak erabiltzen ikasi behar dute; izan ere, urteak bete ahala, gero eta zailagoa da eurei laguntzea.

Ondoren proposatzen ditugun estrategiak ikasteko autonomia garatzeko bidean erabili behar ditugu, eta batzuetan edo batzuentzat oso aproposak izan daitezkeenak beste batzuetan edo batzuentzat, agian, ez dira egokiak. Gure seme-alabak ezagutuz eta helburuak zein diren argi edukita, zein estrategia eta noiz erabili erabaki ahal izango dugu, eta batzuk eta besteak erabiliz nahi dugun norbide horretara hurbiltzen ari garen ikusi ahal izango dugu.

■ Ikasteko ohitura egokiak landu

- Ikasteko ordutegiak eta denbora tarteak finkatu behar dituzte
- Eskolako lanak antolatzen ikasi behar dute:
 - . *Zer egin behar dute?*
 - . *Noizko?*
 - . *Zeri eman behar diote lehentasuna?*
- Eskolako lanak egiteko ahalik eta leku egokiena erabili behar dute.

Arautu edota adostu seme-alabekin eskolako lanak egiteko denbora tarteak:

- 6-7 urterekin normalean ez dute egunero egin beharrik izango eta tarteak ere ez da oso luzea izango (astean bi-hiru egunetan eta 20-30 minutu gehienez)
- Adinean aurrera doazen neurrian egunero edo ia egunero aritu beharko dute eta denbora gehiago beharko dute.

Lagundu hasiera batean eskolako lanak antolatzen:

- Lanak lehenetsunaren arabera antolatu: zer noiz egin. Izan ere, batzuetan ez dira lan guztiak egun batetik besterakoak izaten. Eskola agendak oso lagungarriak izaten dira.

■ Ikasteko gaitasunak eta teknikak garatu

Ikasi behar dutena ulertzea oinarrizkoa da:

- Testua behin eta berriz irakurri behar dute, ondo ulertu arte. Batzuetan, nahiz eta irakurtzen aritu, letrak edo hitzak irakurtzen dituzte, baina irakurtzen dutenari gehiegi erreparatu gabe. Horrek ez du balio.

- Ulertzen ez dituzten hitzak hiztegian begira ditzakete, baina beraiek.

- Ariketa ona da irakurritakoa kontatzea. Gainera oso garrantzitsua da beraiek ezagutzen dituzten hitz eta egiturak erabiltzea. Testuak dioena buruz ikasteak ez du balio.

ULERMENA: ikasi behar dutena ulertzea oinarrizkoa da.

- Esan behin eta berriz irakurtzeko, eta ulertzen ez dituzten hitzak zerrendatzeko.
- Ipini eskuragarri lanak egiteko behar dituzten hiztegiak, eta hitzak topatzeko arazoak badituzte irakatsi hiztegiak erabiltzen.
- Esan irakurritakoa kontatzeko, baina beraiek ezagutze dituzten hitz eta egiturak erabiliz. Horrela jakingo duzue benetan ulertu duten ala ez.
- Proposatu hipotesiak: emaitza ematea baino hobea izaten da. Bide edo ondorio bat proposatu ahal diegu, eta handik abiatuta ideiak ulertzeko eta barneratzeko prozesua beraiek egin dezakete.

MEMORIA: hainbat gaitan, ulertzeaz gain memorizatu ere egin beharko dute.

- Irudika dezakete: memorizatu beharrekoa irudiekin lotu.
- Loturak egin ditzakete: gogoratzeko errazagoa den beste zerbaitekin lotzen badute memorizatu beharrekoa, gutxiago kostatuko zaie ikastea. Lotura horiek bilatzen lagundu ahal diegu.
- Memorizatu beharrekoen zerrendak egin eta tarteka errepasatu.
- Momentu eta modu ezberdinetan gurekin errepasatu: kantatuz, erritmo eta tonu ezberdinak erabiliz...

IRAKURKETA: ulermenarekin oso lotuta dago.

- Irakurzaletasuna sustatzea eskolako lanetan laguntzeko modu bat da.

IDAZKETA:

Zuzentasuna:

- Adinaren arabera normalak diren akatsak praktikarekin gaindituko dituzte.
- Akats serioak baldin badituzte ortografia modu kontzienteagoan landu beharko da: esanahia landu, kartulinetan idatzi eta begi bistan jarri, errepasatu...

Komunikazioa:

- Idazten ari direna kontatzeko eskatu, eta ondoren irakurtzeko eskatu.
- Idazten ari direnari buruzko galderak egin, ideia berriak eta argumentuak atera ditzaten, hobeto antolatzeko...
- Testu bera modu ezberdinetan idazteko eskatu (ipuin bat pertsonai ezberdinen ikuspegitik...)

TESTUA OINARRI DUTEN ESKOLAKO LANAK

- Irakurri eta ulertu egin behar dute: presarik gabe, osoa edo zatika, ulertzen ez dutena azpimarratuz...
- Ideia nagusiak azpimarratu
- Eskemak, laburpenak... egin
- Informazioa berreskuratu: ahozko errepassoak egin, gaiari buruz idatzi...

MATEMATIKAK OINARRI DITUZTEN ESKOLAKO LANAK

- Irakurri eta ulertu egin behar dute: presarik gabe, osoa edo zatika, ulertzen ez dutena azpimarratuz...
- Eman beharreko pausoak aurreikusi: zein eragiketa egin beharko diren, zein ordenetan...
- Eragiketak egin
- Errepassatu: testua berriz irakurri, eragiketak pausoz pauso errepassatu...

Eragiketaren bat egitea lortzen ez badute:

- Jarrai dezatela beste eragiketekin eta itzul daitezela aurrerago.
- Horrela ariketa egitea lortzen ez badute, ariketa azaltzeko eskatu. Azalpen horren bidez arazoa non duten ikusi ahal izango dugu.
- Hipotesiak proposatu: eragiketak nola egin behar diren badakigu, hipotesiak proposatu.

Gaiari jarraipena egin:

- Eskolan zuzendu duten galdetu
- Zalantza argitu duten galdetu
- Guri azaltzeko eskatu, antzeko ariketaren bat proposatu...

■ Ikastera motibatu

Motibazioak etengabea izan behar du, momentu onetan eta txarretan.

- **Ariketak euren kabuz egin ditzakete eta egiteak gaitasuna eta segurtasun sentimendua emango die.** Hori beraiek garbi izan behar dute.
- **Seme-alaben gustuak eta zaletasunak indartu behar ditugu:** kurio-soak izaten irakatsi behar diegu, informazio osagarria bilatzen, gure interesa erakutsi behar diegu...; gaiarekin zerikusia duten gauzak egitea edo lekuetara joatea ere interesgarria da. Jarrera eta norabide horiek barneratzen badituzte, antzekoa egin dezakete ikasketekin.
- **Prozesuei eman behar zaie garrantzia:**
“Ari al dira ikasteko ohiturak barneratzen? Motibatuta al daude?”
- **Errefortzu positiboak eman behar dizkiegu:** zoriondu, animatu, bere arrakastak ospatu... Ez erabili mezu negatiborik.

Epe ertain eta luzera, modu horretan lan eginda askoz etekin hobekak eta iraunkorrak lortuko dira, lorpenetan zentratuta edota zigorrekin mehatxatuta baino.

EBETE hizkuntza zerbitzuek emandako informazioa (www.ebete.org)

ERANSKINA

Eskolako lanetarako material lagungarria

Zuen seme edo alabak zalantzaren bat baldin badu, zalantzak argitzeko hainbat entziklopedia, kontsulta-liburu edo CD daude merkatuan. Atal honetan hainbat liburu, argitalpen eta multimedia produkturen zerrenda aurkituko duzue adin eta ikasgaien arabera sailkatuta, eta bertan zuen semeak edo alabak eskolako lanak burutzeko behar duen informazio osagarria eskuratu ahal izango duzue.

Hemen agertzen diren liburu eta argitalpen guztiak Juan San Martin Udal Liburutegian dituzue eskuragarri.

Horiez gain, aisialdirako haur eta gazteendako bestelako irakurgai ugari ere badituzue adinka eta gaika sailkatuta. Joan Liburutegira eta informazioa eskatu.

Liburutegian bertan kontsultatzeko ez da bazkide izan behar, baina umea bazkide ez bada eta argitalpenen bat etxera eraman nahi badu, joan dadila Liburutegira aita edo amarekin eta berehala egingo diote txartela dohainik.



EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA**(EL EUSKERA Y LA CULTURA VASCA)**

Idazle (istorioak asmatzen laguntzeko tresna / *herramienta para trabajar los relatos*)
6 urtetik aurrera / *a partir de 6 años*
ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Axelko** (hizkuntza lantzeko jokoak / *juegos para trabajar la lengua*)
6-7 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Mixi eta bere lagunak** (ohiturak eta jaiak lantzeko / *costumbres y fiestas*)
6-8 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Armix baso magikoan** (bideo-joko didaktikoa / *videojuegos didácticos*)
8 urte arte / *hasta 8 años*
ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Otsoko** (euskara lantzeko jokoak / *juegos para trabajar el euskera*)
8-10 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Bazter guztiei begira I-II** (hiztegia, sinonimoak, antonimoak, ortografia lantzeko probak / *pruebas para trabajar el vocabulario, los sinónimos, antónimos, la ortografía*)
8-10 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Piratekin hizkuntzaren munduan 1, 2, 3** (euskara lantzeko jokoak / *juegos para trabajar el euskera*)
8-12 urte / *años*
ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Beleko** (asmakizunak, ipuinak, memoria... / *adivanzas, cuentos, memoria...*)
11-12 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Hitzmix** (hitz eta zenbaki jolasak / *juegos de palabras y números*)
8 urtetik aurrera / *a partir de 8 años*
ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Letrak jokagai** (jong motako jokoak eta hiztegi jokoak / *juegos de jong y de vocabulario*)
6-12 urte / *años*
ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Armix ilargian galduta** (bideo-joko didaktikoa / *videojuegos didácticos*)
8-10 urte / *años*
ELHUYAR (multimedia PCrako)

● **ZirriBorrok CD Rom-a** (idazteko lantegia / *taller de escritura*)
6-12 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

INGELESA

● **Explorers 1 eta 2. Activity file, reader, songs and other texts cd...** (ingeleza lantzeko materiala / *material para trabajar el inglés*)
11-12 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (liburua eta CD Rom-a)

MATEMATIKA

t, bi, hiru, lau, bost urdintxo eta pox (aritmetika, geometria, logika eta denbora lantzeko jokoak / *juegos para trabajar la aritmética, geometría, la lógica y el tiempo*)
6-8 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Armix baso magikoan** (bideo-joko didaktikoa / *videojuegos didácticos*)
8 urte arte / *hasta 8 años*
ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Otsoko** (matematikak lantzeko jokoak / *juegos para trabajar las matemáticas*)
8-10 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Morganek hamar, xarpak marmar!** (3. eta 4. mailetako matematikak lantzeko jokoak / *juegos para trabajar matemáticas de 3º y 4º*)
8-10 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Piratekin matematikaren munduan 1, 2, 3** (matematikak lantzeko jokoak / *juegos para trabajar las matemáticas*)
8-12 urte / *años*
ELHUYAR (CD Rom-a)

INGURUAREN EZAGUERA**(CONOCIMIENTO DEL ENTORNO)**

● **Belko** (ingurunea lantzeko jokoak / *juegos para trabajar el entorno*)
6-7 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

● **Sexu informaziorako nire lehen liburua** (sexuari buruzko informazioa / *información sobre el sexo*)
6-7 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (liburua)

- **Birraitonaren museoa I-II** (denbora eta espazioa lantzeko jokoak / *juego para trabajar el espacio y el tiempo*)
6-8 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)
- **Nire lehenengo aurkikuntzak bilduma:** arrautza, otsoa, zerua eta espazioa, zerua eta lurra, giza gorputza, oihana, gaueko animaliak, balea, lorea, hegaziak, zuhaitza (haurren jakin-mina pizteko tresna baliagarria / *libros para incentivar la curiosidad de los niños/as*)
6-10 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Galzorian dauden animalien atlasa** (galzorian eta desagertzeko arriskuan dauden animaliei buruzko informazioa, ilustrazio eder eta bizien bidez / *información sobre animales que están en peligro de extinción, con preciosas ilustraciones*)
6-10 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Animalien bitxikeriak** (animaliei buruzko bitxikeria eta desberdintasunen gaineko informazioa / *curiosidades y diferencias sobre los animales*)
6-10 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Jaio da bilduma:** igela tximeleta, ahatea (animalien bizi-zikloak / *ciclos de vida de los animales*)
6-10 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Urpeko erreinuan** (urpeko biziaren berri jasotzeko jokoak / *juegos para obtener información sobre la vida bajo el agua*)
6-12 urte / *años*
ELHUYAR (CD Rom-a)
- **Nire lehen atlasa** (hiztegiak eta mapak / *vocabulario y mapas*)
6-12 urte / *años*
ELKAR (liburua)
- **Armix baso magikoan** (bideo-joko didaktikoa / *videojuegos didácticos*)
8 urte arte / *hasta 8 años*
ELHUYAR (CD Rom-a)
- **Txanela. Jira eta bira I** (ingurumenari buruzko materiala / *material sobre el medio ambiente*)
8-9 urte / *años*
IKASTOLEN ELKARTEA (DVD-a)
- **Nire gorputza barrutik** (Egiptoko antzinako bizimoduan oinarrituta giza gorputza hobeto ezagutzen laguntzeko joko didaktikoa / *juego didáctico para conocer mejor el cuerpo humano, basado en la antigua forma de vida de Egipto*)
8-14 urte / *años*
ELHUYAR (CD Rom-a)
- **Gure ingurumena** (joko eta irudien bitartez haurrak ingurumena ezagutu eta errespetatzera bideratzeko CDa / *CD de juegos e imágenes para concienciar sobre el conocimiento y respeto del medio ambiente*)
9 urte arte / *hasta 9 años*
ELHUYAR (CD Rom-a)
- **Kakalardoan liburu biziduna** (kakalardoan mundu harrigarria deskubritzeko liburua / *información sobre la increíble vida del escarabajo*)
9-12 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Erleen liburu biziduna** (erleen mundua deskubritzeko liburua / *información sobre el mundo de las abejas*)
- **Haritza, Larrea, Ibaia bizileku bilduma** (naturaren mundu magikoei buruzko bilduma / *colección sobre los mundos mágicos de la naturaleza*)
9-12 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Ezagutu bilduma:** ezagutu egiptoarrak, erromatarak, historiaurrea, greziarrak (herrialde desberdinei buruzko informazioa / *información sobre distintas poblaciones*)
9-12 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Zergatik gara batzuk neska eta besteak mutil?** (sexualitateari buruzko liburua / *libro sobre la sexualidad*)
9-12 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Nondik ote datoz umeak?** (sexualitateari buruzko liburua / *libro sobre la sexualidad*)
9-12 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Zertan ari dira aita eta ama?** (sexualitateari buruzko liburua / *libro sobre la sexualidad*)
9-12 urte / *años*
TTARTALO (liburua)
- **Geografian aritu** (geografiari buruzko bideo-joko didaktikoa / *videojuego didáctico sobre geografía*)
10 urte / *años*
ELHUYAR (PCrako multimedia)
- **Mesedeak eskatu** (gure harremanak hobetzeko gaitasunak / *capacidades para mejorar las relaciones*)
8-11 urte / *años*
EREIN (liburua)

ZIENTZIA (CIENCIA)

- **Zernola jokoak** (jolas ugari: robotika, rallya, laborategian jolasten, gurutzegrama... / *juegos:*

robótica, rally, laboratorio, crucigramas...

www.zernola.net/jokoak

8-14 urte / años

ELHUYAR (web gunea)



MUSIKA

● **Kantuketan** (jolasen bitartez, musikaz gozatu eta musika ikasi ahal izateko materiala / *juegos para gozar de la música y aprenderla*)

6-12 urte / años

ELHUYAR (CD Rom-a)

HIZTEGIAK (DICCIONARIOS)

Irudi bidezko hiztegiak (*Diccionarios con imágenes*)

● **Irudi bidezko hiztegia** (unibertsoa, lurra, izaki bizidunak, gizakia eta bere ingurunea/ *diccionario con imágenes sobre el universo, la tierra, los seres vivos, el ser humano y su entorno*)

6-12 urte / años

ELKAR (liburua)

● **Nire lehen hiztegia** (hiztegi entziklopediko txiki bat da, hiztegiekin lehen harremanetan hasteko apropos- aproposa / *es un diccionario enciclopédico, muy adecuado para cuando empiezan a utilizar los diccionarios*)

6-12 urte / años

ELKAR (liburua)

Euskara-euskara hiztegia

● **Euskal hiztegia**

(Ibon Sarasola)

ELKAR (liburua)

● **Euskara hiztegia: euskara-euskara**

EREIN (liburua)

● **Hiztegi batua** (*diccionario unificado*)

www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua/

EUSKALTZAINDIA (web gunea)

● **Mini hiztegia**

LUR (liburua)

Euskara-gaztelania / castellano-euskera

● **Hiztegi txikia: euskara-gaztelania /gaztelania-euskera**

ELHUYAR (liburua)

● **Elhuyar oinarrizko hiztegia: euskara-gaztelania / castellano-vasco**

www.euskara.euskadi.net

ELHUYAR (liburua/ web gunea)

● **3000 hiztegia**

www1.euskadi.net/hiz_3000/

Bostak bat

● **Ikaslearen hiztegia**

6-12 urte / años

ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Elhuyar hiztegi elektronikoa: euskara-gaztelania / castellano-vasco**

ELHUYAR (CD Rom-a)

● **Hiztegiak sarean** (sinonimoen hiztegia, banku terminologikok, euskara-ingelesa, euskara-frantsesa, entziklopediak... / *sinónimos, bancos terminológicos, euskera- inglés, euskera-francés, enciclopedias...*)

www.hiztegia.net

Hiztegi entziklopedikoak (*Diccionarios enciclopédicos*)

● **Hiztegi entziklopedikoa**

ELKAR (liburua)

● **Harluxet hiztegi entziklopedikoa**

www1.euskadi.net/harluxet

HARLUXET (web gunea)

● **Lur hiztegi entziklopedikoa**

LUR (liburua/CD-a)

Sinonimoen hiztegiak (*Sinónimos*)

● **Sinonimo eta antonimoen hiztegia**

11-15 urte

ELHUYAR (liburua)

● **Sinonimoen hiztegia. Adorez 8**

www1.euskadi.net/hizt_sinon/indice_e.htm

BOSTAK BAT (liburua / web gunea)

● **Sinonimoen hiztegia (UZEI)**

www.uzei.com

(web gunea)

Euskara-ingelesa / ingelesea-euskara

● **Euskara-ingelesa Morris hiztegia**

www1.euskadi.net/morris/hiztegia.htm

(liburua, web gunea)

Euskara-frantsesa

● **Dictionnaire Elhuyar Hiztegia (euskara-frantsesa / francais-basque)**

11-15 urte

ELHUYAR (liburua)

Euskara-alemana / alemana-euskara

- **Euskara-alemana / alemana-euskara**
ELKAR (liburua)

Gaztelania-gaztelania

- **Diccionario general de la lengua española Vox**
VOX (liburua / CD Rom-a)
- **Diccionario de la Lengua Española**
www.rae.es
RAE (web gunea / liburua)

ENTZIKLOPEDIAK ETA KONTSULTARAKO MATERIALA *(ENCICLOPEDIAS Y MATERIAL DE CONSULTA)*



Euskal Herriko aurpegiak (Euskal Herrian barrena bidaiari edo bat egiteko eskaintza. Historia, geografia, hizkuntza, kultura, ekonomia, bizimoduak eta abar / *Una invitación para recorrer el País vasco a través de un hermoso viaje. Historia, geografía, lengua, cultura, economía, costumbres y muchas cosas más*)
ELHUYAR (DVD-a)

- **Euskal Herriko fauna. Ornodun lehorrak** (gure inguruko ugaztun, hegazti, narrasti eta anfibioen espezie arrenak eta beren biologia ebolutiboaren eta ekologiararen inguruko oinarritzko kontzeptuak/ *especies más comunes de mamíferos, aves, reptiles y anfibios de nuestra zona, y conceptos básicos sobre su biología evolutiva y ecología*)
ELHUYAR (liburua)

- **Euskal herriko hezeguneak** (hezeguneak zer diren eta nola funtzionatzen duten azaltzeaz gain, Euskal herriko 12 hezegune deskribatu eta aztertu dira liburu honetan / *qué son los humedales y su funcionamiento, y descripción de 12 humedales*)
ELHUYAR (liburua)

- **Mega txikientzat** (gizon-emakumeen bizitza eta hauen historia; munduko herrialde eta paisaiak; animaliak, loreak, landareak eta gizakien gorputza; lurra, zerua eta espazioa.../ *vida e historia de los hombres y mujeres; países y paisajes del mundo; animales, flores, plantas y cuerpo humano; tierra, cielo y espacio...*)

6-10 urte / *años*
ELKAR (liburua)

- **Gazteentzako entziklopedia** (izaki bizidunak, animaliak, zientzia eta unibertsoa, munduko historia, antzinako herriak, lurra, munduko atlasa, natura, teknologia eta garraioa, mundua eta bere ezagutza / *seres vivos, animales, ciencia y universo, historia del mundo, pueblos antiguos, la tierra, atlas del mundo, naturaleza, tecnología y transporte, el mundo y su conocimiento*)

9-12 urte / *años*
TTARTALO (liburua)

- **Mega gaztetxentzat** (historia, geografia, hizkuntza, matematika, fisika eta natur zientziak ikasteko laguntza paregabea / *ayuda extraordinaria para el aprendizaje de la historia, geografía, lengua, matemáticas, física y ciencias de la naturaleza*)
10-12 urte / *años*
ELKAR (liburua)

- **Entziklopedia laburra** (hiztegi entziklopediko euskalduna/ *diccionario enciclopédico*)
www.donostia.org/euskara/entziklopedia.nsf
EUSKARAREN DONOSTIA PATRONATUA (web gunea)

- **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ondare arkitektoniko I, II, III (erlijioso).** (*patrimonio arquitectónico*)
IKASTOLEN ELKARTEA (CD Rom-a)

- **Iraganaren bila: bideo bilduma** (erabilgailuak eta tresnak, antzinako teknologia, miaketa arkeologikoa, indusketa, ehorzketa arkitektura: trikuharria I eta II, Zer irakurtzen da aurkikuntzan? / *utensilios, tecnología antigua, exploración arqueológica, excavación...*)
IKASTOLEN ELKARTEA (liburua)

- **Izena duena, bada bilduma:** iratxoaren artean; Mari, lurraren jainkosa izadia gurtzen zenekoa (mitologia lantzeko materiala/ *material para trabajar la mitología*)
IKASTOLEN ELKARTEA (bideoa, DVD-a)

- **Hiztegi etnografikoa I** (*diccionario etnográfico*)
IKASTOLEN ELKARTEA (liburua, CD Rom-a)

- **Planeta gaikako gida** (11 gairen inguruko entziklopedia/ *enciclopedia sobre 11 temas*)
PLANETA (liburua)

- **Lur hiztegi entziklopedikoa** (*diccionario enciclopédico*)
LUR (liburua)

- **Lur hiztegi tematikoa** (*diccionario temático*)
LUR (liburua)

- **Wikipedia**
<http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>
(web gunea)

GEOGRAFIA ARLOKO KONTSULTAGIAK (GEOGRAFÍA)

- **Munduko eta Euskal Herriko atlasa, geografikoa eta politikoa** (*atlas geográfico y político*)
11-15 urte / *años*
ELHUYAR